



Haur Hezkuntza

1. Modulua: Irakasle Funtzioa

DIZIPLINA ARTEKO LANA (DAL) EGITEKO GIDA

2025-2026

Aurkibidea

1. Aurkezpena	3
2. Arautegia eta Salbuestea	5
3. Helburuak eta gaitasunak	6
3.1. Helburuak	7
3.2. Gaitasunak	7
4. Lanaren garapena	8
4.1. Kronograma orientagarria	8
4.2. Azken txostena	9
4.3. Txostenak egiteko orientabideak	9
4.4. Lana garatzeko faseak	11
4.5. Eszenatokia	11
5. Ebaluazioa	13
5.1. Gaitasunak eta ikaskuntza-emaitzak	14
6. Bibliografia	15
7. Eranskinak	16
7.1. Ebaluazio txantiloia	16
A. Irakasleak taldea ebaluatzeko txantiloia	17
B. Ikaslearen autoebaluaziorako txantiloia	17
C. Irakasleak taldeari egindako autoebaluaziorako txantiloia	18

1. Aurkezpena

Titulazio eta ikasketa plan berriak berriro planteatu direnez, Bilboko Hezkuntza Fakultateak irakasleen hasierako prestakuntzaren inguruan hausnarketa egin du eta irakaskuntza ulertzeko moduan zenbait aldaketa proposatu ditu.

Gaur egungo lanbide-esparruak prestakuntza sendoagoa eta konplexuagoa eskatzen die ikasleei, bizi dugun errealitate sozial eta kulturalen txertatuta, eta "ikasten ikasi" printzipioaren arabera antolatua. Horregatik, Bilboko Hezkuntza Fakultateak diziplina arteko ikuspegia lehenesten du, diziplinen batuketa soilaren orde; eta kolaborazioan oinarritutako ikaskuntza sustatzen du, banakako lanetik harago. Hori dela eta, hezkuntza arloko titulazioetan egitura modularra ezarri da.

Modulu bat lauhileko berean ematen diren irakasgaiek osatzen dute; irakasgai bakoitzak bere eremu akademiko propioa du, baina kreditu bat gordetzen da Moduluko Diziplinarteko Lana (DAL) izeneko jarduerarako. Modulua irakasle-taldeak gainbegiratzen du; hau da, lauhileko horretan irakasten ari diren irakasleek osatutako taldeak diseinatuko du ikasleek lankidetzan egin beharreko diziplinarteko lana.

DALa lankidetzak-ikaskuntza estrategia baten bidez gauzatuko da, non ikasleek talde txikitan (5-6) koordinatuta lan egiten duten zeregin akademikoak burutzeko eta euren ikaskuntza garatzeko. Testuinguru horretan, partaideen helburuak elkarri lotuta daude: "bakoitzak bere helburuak lortuko ditu, baldin eta besteek berenak lortzen badituzte" (Johnson & Johnson, 1999).

1. modulua, "Irakasle Funtzioa", Haur eta Lehen Hezkuntzako Graduaren lehenengo ikasturtean garatzen da, lehenengo lauhilekoan. DALaren garapenerako, irakasle-taldeak "Eskolako egokitzapen aldia" izendatu du gai nagusitzat. Horretarako, Problemetan Oinarritutako Ikasketa (**ABP/POI**) metodologia erabiliko da, eta lanak 5 ECTS kreditu izango ditu. DALa irakasle-taldeak gainbegiratu eta ebaluatuko du.

DALaren definizioa honakoa da:

"ABP/POI metodologia aplikatzea zenbait egoera edo problema aztertu eta nola ebatzi daitezkeen ikusteko, eta idatzizko txostena prestatzea metodologia honetan onartutako pausoei jarraituz" (Tec de Monterrey, 2000).

Modulua osatzen duten irakasgaiak honako hauek dira:

- Irakasle Funtzioa
- Hezkuntzaren Soziologia
- Hezkuntzaren Teoria eta Historia
- Komunikazio Gaitasunaren Garapena I
- Eskola-adineko Garapenaren Psikologia

DALak ez du izan behar aparteko zeregin bat ikasleentzat; aitzitik, modulu osoaren osagaia da, eta haren bidez landuko dira bai irakasgai bakoitzaren gaitasun espezifikoak, bai titulazioko gaitasun orokorrak. Ikasleek problema pedagogiko baten gaineko analisi sakona egin beharko dute, irakasgai guztietako ikuspegia uztartuz eta ondorioak txosten idatzi eta ahozko aurkezpen baten bidez aurkeztuz.

DALaren gai nagusia, "Eskolako egokitzapen aldia", bat dator Garapen Jasangarrirako 3. Helburuarekin (GJH 3): *"Bizitza osasuntsua bermatzea eta guztiontzako ongizatea sustatzea adin guztietan"*. Hortaz, diziplinarteko lanak egokitzapen-aldian jarriko du arreta, hezkuntza-ongizateko eredu bat garatzeko helburuarekin. Egokitzapen garaian haur guztien behar fisiologikoak, mentalak eta afektiboak nola tratatu aztertuko da, baita familien, gizartearen eta eskolaren arteko partaidetzak duen garrantzia ere (Medina de la Maza et al., 2017).

DALak jarraibide hauek izango ditu:

1. DALa egiteko ikasle-taldeak lauhilekoaren hasieran argitaratuko dira. Talde bakoitzari tutore bana izendatuko zaio, eta tutore hori beti izango da moduluan irakasgairen bat ematen duen irakaslea.

2. DALaren lehen fasea 5. eskola-asteen gauzatuko da (urriak 6–10 bitartean), eta bigarren fasea 9. asteen (azaroak 3–7). Lauhilekoko azken asteen (abenduak 15–19), talde bakoitzak bere lana ahoz defendatuko du dagokion tutorearen aurrean.
3. DALa egiteko 125 ordu inguru beharko dituzte ikasleek (5 ECTS kreditu), 9 astetan banatuta. Horietatik 2 aste (40 ordu) aurrez aurrekoak izango dira, eta arlo guztiek parte hartuko dute bai klase teorikoetan bai praktiketan. Gainerako orduak ez dira aurrez aurrekoak izango; edonola ere, ikasle bakoitzak gutxi gorabehera 14 ordu asteen eskaini beharko dizkio lanari.
4. Talde bakoitzak gutxienez 4 tutoretza-saio izango ditu, tutorearekin adostutako datetan, lanaren jarraipena, orientazioa eta zalantzen argitzea bermatzeko.

2. Arautegia eta Salbuestea

Modulua egitura modularrean oinarrituta dagoenez, eta DALak diziplina arteko edukia eta ikaskuntza-prozesua barne hartzen duenez, ikasleek jarraikako ebaluazioan parte hartzea da ohiko modua. Hala ere, ikasleren batek justifikatutako arrazoiengatik ezin badu parte hartu (adibidez: lan-arrazoiak, familiako kideak bere ardurapean izatea, %33ko edo hortik gorako urritasuna, goi mailako kirolaria izatea, bidaiak, jarduera artistiko/kultural intentsiboak, goi mailako beste ikasketekin edo erantzukizun politiko, sindikal edo sozialekin bateragarritasuna, etab.), aukera izango du DALari loturiko alternatiba bat garatzeko, eta lana ahoz defendatu beharko du, moduluan horretarako zehaztutako egunean.

Egoera horretan dauden ikasleek moduluko koordinatzailearekin edo titulazioko koordinatzailearekin harremanetan jarri beharko dute urriaren 10a baino lehen, eta hark azalduko dizkie lanaren baldintzak: nola eta noiz entregatu, nork ebaluatuko duen eta nola antolatu defentsa. Kasu honetan, tutorerik ez da esleituko, eta ikasleak dagokion arloko irakaslearengana jo beharko du zalantzak argitzeko.

Proba horrek moduluko DALaren balio bera izango du: hau da, moduluko irakasgai bakoitzaren azken notaren %16 izango da. Lortutako kalifikazioa ekaina-uztailako ohiz kanpoko deialdiraino gordeko da.

Edozein kasutan, EHUKo Gobernu Batzarrak 2016ko abenduaren 15ean onartutako araudia aplikatuko da (EHAA, 50 zk., 2017ko martxoaren 13koa).

DALa egiteaz salbuestea

Salbuespen egoeretan, ikasle batzuk DALa egin beharrik gabe gera daitezke, honako kasu hauetan:

1. Ikaslea modulu bereko hiru irakasgaitan gutxienez matrikulatuta badago, DALa egin beharko du. Bestela, ez da beharrezkoa izango DALaren garapena.
2. Aldi berean bi modulu egiten ari diren ikasleek, irakasgai batzuk baliozkotuta edo oraindik gainditu gabe dituztelako, modulurik zabalenean (irakasgai gehien egiten dituztenean) parte hartu beharko dute DALean. Bi moduluetan irakasgai kopurua berdina bada, goreneko mailako moduluan egingo dute DALa.
3. DALa egin behar ez duten ikasleen kalifikazioa irakasgai bakoitzaren 10 puntutik kalkulatu da, DALaren ehunekoa aplikatu gabe.

Egoera hauetako edozeinetan, gomendagarria da ikasleak berehala jartzea harremanetan moduluaren edo titulazioaren koordinatzailearekin, egoeraren berri emateko eta jarraibide egokiak jasotzeko.

3. Helburuak eta gaitasunak

DALaren gai nagusia "Eskolako egokitzapen aldia" da. Hurrek lehen aldiz eskolara sartzen direnean bizi duten prozesu hau funtsezkoa da hezkuntza-esperientzia arrakastatsua izateko. Hortaz, DALaren bidez ikasleek haur txikien

ongizatea eta hezkuntza ingurune atsegin eta babestua bermatzeko estrategiak garatuko dituzte.

3.1. Helburuak

DALaren helburu nagusiak ondorengoak dira:

1. Problema pedagogiko bat aztertzea, ABP/POI metodologia aplikatuz, 1. moduluko irakasgaien ikuspegitik abiatuta.
2. Egoera-problemen aurrean erantzun hezigarri arrazoituak eraikitzea, haur txikien ongizatea ardatz hartuta.
3. Irakasleen lanaren konplexutasuna azaleratzea, eskolara egokitze arazoetatik abiatuz.
4. Jarrera kritiko eta arduratsuak garatzea irakasle-funtzioarekiko, haurren ongizatearen ikuspegitik.
5. Idatzizko txosten bat osatzea, lan-prozesua eta lortutako emaitzak azaltzeko eta komunikatzeko.

3.2. Gaitasunak

DALaren bidez ikasleek gaitasun hauek garatuko dituzte:

1. Irakasle-funtzioaren egoera gatazkatsuak identifikatu, aztertu eta ebazteko gaitasuna, diziplina ezberdinen ekarpenak integratuz eta haurrei beti "tratu ona" emateko ikuspegitik erabaki etikoak hartuz.
2. Eskola curriculumean integratuta dauden zientzia eta kultura eremuetako testuen irakurketa eta iruzkin kritikoa egiteko ohitura eta gaitasuna.
3. Irakasle-funtzioaren dimentsio hezitzailea bereganatzea, eta hezkuntza demokratikoa sustatzea, bizitza osasuntsua bermatzeko ongizate ereduan oinarrituta.
4. Talde-lanerako gaitasuna, eta modu autonomoan zein lankidetzan ikasteko ohiturak eta trebetasunak garatzea.

5. Hezkuntza eremuko egoerak eta praktika pedagogikoak aztertzea, berrikuntza txertatzeko eta irakasle-lana hobetzeko; ahuleziaren ikuspegia gaindituz eta ongizatearen eredia sustatuz.
6. Euskara eta gaztelaniaz adierazpen egokia eta zuzenaren erabilera, bai ahoz eta bai idatziz, eta hizkuntza eta kultura aniztasunarekiko jarrera errespetuzkoa erakustea.

4. Lanaren garapena

4.1. Kronograma orientagarria

DALaren garapenak fase ezberdinak ditu, ikaskuntza-prozesu koherente eta progresibo batean antolatuta. Jarduera hauek banakako lanarekin eta taldeko dinamikarekin uztartzen dira, tutoretza-saioen bidez orientatuta. Ondoko taulan ikusten da kronograma orokorra:

Jarduerak	Astea / Data	Tutoretza	Banakako	Taldean	Emateko agiriak / epeak
- Gidaren azalpena					
- ABParen oinarriak eta talde lanaren azalpena					
- Taldeen osaketa	5. astea				
- Funtzionamendu-arauen eta rolen banaketa	(urriak 6–10)	X	X	X	Taldearen funtzionamendua eta hipotesien planteamendua
- Egoera aztertu, lehen irakurketa					
- Arazoa zehaztu eta hipotesiak planteatu					
- Informazio beharrak identifikatzea	6. astea		X	X	
- Irakasgaien ekarpenak jasotzea	7. astea	X			
- Zereginen banaketa					
- Iturri fidagarrietan informazioa bilatu, aztertu eta hautatu	8. astea				
- Emaizten partekatzea taldean	9. astea				
- Arazoa berriz definitzea	(azaroak 3–7)	X	X		Txostenaren lehen zirriborroa eta bibliografia
- Ebazteko aukera posibleak identifikatzea	10., 11. eta 12. asteak	X			

Jarduerak	Astea / Data	Tutoretza	Banakakoa	Taldeak	Emateko agiriak / epeak
- Txostena idazten hastea					
- Txostena osatzea eta aurkezpena prestatzea	13. astea (abenduak 4)				Azken txostena entregatzeko azken eguna
- Txostena tutoreari entregatzea					
- Ahozko defentsa tutorearen aurrean	15. astea (abenduak 15-19)			X	Defentsa

Data garrantzitsuak:

- Lehen astea: **urriak 7-11**
- Bigarren astea: **azaroak 4-7**
- Txosten/dosierra tutoreari entregatzeko azken eguna: **abenduak 5**
- Ahozko defentsa: **abenduak 16-20**

4.2. Azken txostena

Taldeek aurkeztu beharreko lan nagusia txosten idatzi bat izango da. Honako elementuak jaso beharko ditu:

- Arazoaren konponbidea bilatzeko jarraitu den prozesuaren deskribapena. Pauso bakoitzean erabilitako iturriak eta taldeko ekarpen adostuak azaldu beharko dira.
- Taldearen funtzionamenduaren azalpena (arauak, dinamika, etab.).
- Taldeko bilera-aktak.
- Taldeko eta banakako gogoeta eta autoebaluazioa.
- Erabilitako dokumentazio osagarria, eranskinetan sartuta.

4.3. Txostenak egiteko orientabideak

Lan horrek unibertsitateko edozein lanek dituen ezaugarriak izango ditu egitura zientifikoari, aspektu formalei eta hizkuntza-egokitasunari dagokiela.

Egiturazko eta formalitate akademikoak:

- Luzera: 15-20 orrialde (erreferentzia bibliografikoak barne).

- Gutxienez 10 iturri fidagarri eta espezializatu erabili beharko dira.
- Bibliografian jasotako iturri guztiak testuan aipatu behar dira.
- Eranskinak testuan aipatu eta amaieran kokatuko dira (15–20 orrialdeetatik kanpo).
- Testuaren ezaugarriak: lerroarte 1,5; paragrafo justifikatuak; letra-mota Times New Roman, Arial edo Calibri (12 tamaina); DIN A4 papera; 2,5 cm-ko marjinak.
- APA 7. edizioko arauak erabili behar dira (aipuak egiteko testuan zehar naiz erreferentzia bibliografikoak jasotzeko ere). Kontsultatu euskal Herriko Unibertsitateko liburutegiak osatutako gida (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, 2022).
- Erabilera ez-sexista bermatu behar da: egileen izen-abizen osoak agertu behar dira. Horretarako Euska Herriko Unibertsitateko Berdintasun Sailak gomendatzen duen gida kontsultatu (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, d.g.).

Hizkuntza gaitasuna:

- Testuak adierazpen linguistiko zuzena izan behar du.
- Akats larriak daudenean edo testua ulergaitza denean - beste hizkuntzetatik itzultzeagatik edo hizkuntzaren adierazpide okerra erabiltzeagatik.-, lana ez da zuzenduko.
- Baloratuko diren elementuak:
 - Koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta zuzentasuna
 - Diskurtsoaren ulergarritasuna
 - Hiztegiaren aberastasuna eta ortografia
 - Ergatiboa eta komunztadura

Plagioaren aurkako ohartarazpena:

Beste egileen lanen kopia edo imitazioa ez da onartuko. Ikasleek zitazio arauak ezagutu eta errespetatu behar dituzte. Plagioa hautematen bada, lana baztertuko da eta DAL ez da gainditutzat emango.

4.4. Lana garatzeko faseak

DALaren metodologia ABP/POI denez, prozesua ondorengo urratsetan garatuko da:

- Egoeraren irakurketa banaka eta taldean; zalantzen azaleratzea (terminologia, kontzeptuak, egoerak, etab.) eta konponbide posibleak identifikatzea.
- Arazoaren ertz guztiak denen aurrean azaltzea. Arazoa definitzea.
- Aurre-ezagutzaren aktibazioa: zer dakigu, zer entzun dugu, zer bizi izan dugu?
- Hipotesien formulazioa.
- Taldean kide bakoitzaren ekarpen indibidualak jasotzea: dakitena eta konponbiderako proposatzen diren aukerak.
- Informazio berria bilatzeko plangintza egitea eta zereginak banatzea.
- Informazioa bilatzea, aztertzea eta hautatzea. Eta irakasgaien ekarpenak jasotzea.
- Taldean emaitzak partekatzea. Informazio berria aztertzea eta arazoa berriz definitzea.
 - Kausak, jatorria eta ondorioak identifikatzea.
 - Moduluko irakasgai ezberdinen ikuspegia txertatzea.
 - Esparru teoriko eta praktikoa eskutik hartze proposamenak garatzea.
 - Gogoeta kritikoa eta balioetan oinarritutako hausnarketa sustatzea.
- Konponbidearen diseinua: ekintza posibleak proposatzea.
- Prozesu osoaren ebaluazioa eta azken ondorioen formulazioa.
- Txostena azken bertsiora egokitzea eta ahozko aurkezpena prestatzea.

4.5. Eszenatokia

Eskolako egokitzapen aldia

Asier eta Katixa Haur Hezkuntzako irakasleak dira, eta azken bi ikasturteetan eskolako 2 eta 3 urteko geletan aritu dira tutore modura. Eskola berean ari dira

lanean hasieratik, eta aurreko berritako ere 2 urteko gelan hasiko dira ikasturtea. Biak ilusioz daude haur berriak ezagutzeko eta ikasturte berriari ekiteko, baina egokitzapen aldiari dagokionez, azken esperientziak ez dituzte oroitzapen onekin gogoratzen.

Aurreko ikasturtean, hainbat zailtasun izan zituzten egokitzapen prozesuan, eta horietako batzuk oso nabarmenak izan ziren. Haur askok negarrez hasten zuten eguna, eta familien besoetan egonda bakarrik lasaitzen ziren. Beste batzuk, berriz, bakartuta jolasten zuten, materiala partekatu gabe eta harreman sozialetan zailtasunak izanik. Zenbait kasutan, hizkuntza ulermen eta adierazpen gaitasun eskasa zuten haurrek guztiz galdua ziruditen, ingurukoekin konektatu ezinik. Gutxi batzuek soilik egin zuten egokitzapena modu lasaian eta naturaltasunez.

Familiekin izandako harremanek ere ez zuten espero zen funtzionamendua izan. Ikasturtea hasi baino egun batzuk lehenago bilera bakarra antolatu zuten, baina guraso askoren urduritasunak zaildu egin zuen komunikazioa, eta hezitzaileek ez zuten lortu partekatu nahi zuten informazioa argi eta modu egokian helaraztea. Horrez gain, bilerara bertaratu ziren guraso askok ez zuten ez euskaraz ez gaztelaniaz komunikatzeko gaitasunik, eta horrek interakzio zuzena ia ezinezkoa bihurtu zuen. Beste hainbat familia, aldiz, ezin izan ziren bilerara joan, bilera lan-ordutegiarekin bat zetorrelako, eta ez zutelako aukerarik lanetik lehenago irteteko.

Egokitzapen egunetan, gela barruko dinamika ere ez zen erraza izan. Hainbat familia maiz sartzen ziren gelara hurrekin batera, eta agurrak luzeak eta emozionalki intentsuak izaten ziren. Honek ez zuen lagundu haurrek autonomia eraikitzean, ezta gela barruko giroaren egonkortasunean ere. Asierrek eta Katixak aitortzen dute ez zutela behar adinako denborarik izan haur bakoitzaren eta haien familien inguruko informazio esanguratsua jasotzeko, eta testuinguruaren aniztasuna behar bezala ezagutzeko. Prestakuntza teknikorik ere apenas egin ahal izan zuten; egokitzapen aldia hurbiltzen ari zen bitartean, oharkabean pasatu zitzaizen antolaketa-lan garrantzitsu asko egiteko aukera.

Aurten, egoera errepika ez dadin, bi irakasleek erabaki dute egokitzapen prozesuari behar bezala heltzea. Ez dute nahi inprobisazioan aritu, ezta aurreko urtetako ziurgabetasuna berriz bizitu ere. Hausnarketa prozesu sakon bat martxan jarri nahi dute, haurren ongizatea ardatz izango duen antolaketa bat diseinatzeko. Aste horiek ondo planifikatu nahi dituzte, hizkuntza-aniztasuna eta familien beharrak kontuan hartuta, eta egokitzapenean eragina duten faktore guztiak garaiz eta modu integratuan prestatu.

5. Ebaluazioa

DALaren ebaluazioa bi osagai nagusitan banatzen da:

1. Ikasleek eginiko ebaluazioa: taldearen barne-ebaluazioak %10eko pisua izango du.
2. Irakasle tutorearen ebaluazioa, ondorengo irizpideen arabera banatuta:
 - Lana burutzeko prozesua: %10
 - Idatzitako txostena: %60
 - Ahozko aurkezpena: %10
 - Taldeari egindako ebaluazio orokorra: %10

Ebaluazioaren egitura eta arduren banaketa honela islatzen da (ikus 7.1. eranskina):

Zer ebaluatzen da	Ikasleek Irakaslea	
	k	k
Txostena		%60
Prozesua		%10
Ahozko defentsa		%10
Taldearen funtzionamendua	%10	%10

Ikasle bakoitzaren azken nota bost puntuazio horien batuketatik eratorriko da. DALa gainditzeko, derrigorrezkoa da puntuazio bakoitzaren gutxieneko erdia lortzea.

DAL diziplina arteko lana denez, ikasle guztiek nahitaez parte hartu behar dute. Ebaluazioa izaera formatibo eta jarraitukoa izango da, eta ondorengo elementuetan oinarrituko da:

- Lana epe barruan idatziz entregatzea
- Ahozko aurkezpena egitea tutorearen aurrean
- Tutoretza-saioetan aktiboki parte hartzea

DALaren kalifikazioa moduluko irakasgai bakoitzaren azken notaren %16 izango da, hau da, 1,6 puntu.

Ebaluazio jarraituan parte hartzeko, ikasleek lan-prozesu osoan modu aktiboan parte hartu behar dute. Hala ere, ikasleek eskubidea dute azken ebaluazioaren bidez baloratuak izateko, nahiz eta jarraipen-ebaluazioan parte hartu ez. Horretarako, moduluko koordinatzaileari idatziz jakinarazi beharko diote lauhilekoa hasi eta bederatzi aste igaro aurretik.

Bestalde, justifikatutako arrazoiren batengatik (ikus 2. atala) jarraipen-ebaluazioan parte hartu ezin duten ikasleek egoera edo arazo bati lotutako banakako lana egin beharko dute, eta beharrezkoa izanez gero, ahoz defendatu. Justifikazioa eta lanaren plangintza bederatzigarren astea baino lehen aurkeztu beharko da, koordinatzailearekin harremanetan jarritz.

Salbuespen bidezko proba horren balioa DALaren bera izango da: 1,6 puntu irakasgai bakoitzean. Lortutako nota ekaina-uztailako ohiz kanpoko deialdiraino gordeko da.

5.1. Gaitasunak eta ikaskuntza-emaizak

DALaren bidez garatu beharreko gaitasunak eta ikaskuntza-emaizak honela egituratzen dira:

Gaitasuna	Ikaskuntza-emaizak	Ebaluazio euskarria
Informazio- eta komunikazio-baliabideak (IKTak, bibliotekak, fonotekak, etab.) kritikoki erabiltzea	Iturri anitzak erabiltzea. Plagioa saihestea. APA 7 arauen arabera aipua egitea	Txosten idatzia /Ahozko aurkezpena

Gaitasuna	Ikaskuntza-emaiza			Ebaluazio euskarria
ezagutza-iturrietara heltzeko eta lan kooperatiboak errazteko				
Adierazpen linguistiko egokia ahoz eta idatziz, diskurtso ortografikoa, egituratuaren bidez*	Zuzentasun	gramatikala	eta	
	Terminologia	egokia.	Txosten	idatzia
	Koherentzia	eta logika	ideien /Ahozko defentsa	
	aurkezpenean			
Gaitasun komunikatibo aberatsak garatzea (ahozkoak, Aurkezpene idatziaren eta ahozkoaren idatziak, ikusizkoak, gorputzezkoak, afektiboak, koherentzia. Lengoia ezberdinen musikalak)	erabilera adierazkorra			Txosten idatzia /Ahozko defentsa
Talde-lanean parte hartzea, ardura eta elkarrekiko Taldearen antolaketa egokia: helburuak, Taldearen auto-errespetua sustatuz	funtzioak, epeak eta arauak adostuta			ebaluazioa

6. Bibliografia

American Psychological Association. (2020). *Publication Manual of the American Psychological Association* (7th ed.).

Branda, L. A. (2008). El aprendizaje basado en problemas: el resplandor tan brillante de otros tiempos. In *El aprendizaje basado en problemas: Una nueva perspectiva de la enseñanza en la universidad* (pp. 17–46). Gedisa.

Dolmans, D. H., De Grave, W., Wolfhagen, I. H., & Van Der Vleuten, C. P. (2005). Problem based learning: Future challenges for educational practice and research. *Medical Education*, 39(7), 732–741.

Hmelo-Silver, C. E., & Barrows, H. S. (2006). Goals and strategies of a problem-based learning facilitator. *Interdisciplinary Journal of Problem-Based Learning*, 1(1), 4.

Hung, W., Jonassen, D. H., & Liu, R. (2008). Problem-based learning. In *Handbook of Research on Educational Communications and Technology* (3rd ed., pp. 485–506).

Johnson, D. W., & Johnson, R. T. (1999). *Learning together and alone: Cooperative, competitive, and individualistic learning* (5th ed.). Allyn & Bacon.

Medina de la Maza, Á., Estrada Gómez, L. F., & Barrantes Torrús, R. (2017). *El bienestar en la Escuela Infantil: sintonía entre el sentir, el pensar y el hacer*. Tarbiya: Revista de Investigación e Innovación Educativa, (45), 61-71.

Neville, A. J. (1999). The problem-based learning tutor: Teacher? Facilitator? Evaluator?. *Medical Teacher*, 21(4), 393–401.

Tec de Monterrey. (2000). *Las técnicas didácticas en el modelo educativo del Tec de Monterrey*. https://sitios.itesm.mx/va/dide/docs_internos/inf-doc/tecnicas-modelo.PDF

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. (2022). *APA 7. edizioko estiloaren gida*. <https://www.ehu.eus/documents/2104939/2641240/APA+7+gida+laburra+%28EHU%29.pdf>

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. (d.g.). *Ez sexistan erabiltzeko gida*. <https://www.ehu.eus/documents/1734204/1884196/Ez+sexistan+erabiltzeko+gida+EHU.pdf>

7. Eranskinak

7.1. Ebaluazio txantiloiak

DALaren ebaluazio-prozesua aberasteko eta zehazteko, irakasleek eta ikasleek erabiliko dituzten ebaluazio-txantiloak aurkezten dira jarraian. Txantiloak hauek prozesuaren, txostenaren eta ahozko aurkezpenaren ebaluazio-irizpideak sistematizatzen dituzte.

A. Irakasleak taldea ebaluatzeko txantiloia

Ebaluazio arloa	Irizpideak	Pisuaren %a
Txostena	- Ideiak modu argian eta zehatzean azaltzen dira	60%
	- Argudioak koherenteak dira	
	- Gaiaren ulermen sakona dago	
	- Arrazoibidean heldutasuna erakusten da	
	- Informazio iturrien erabilera egokia da	
	- Arazoa AOI metodologiarekin aztertua da	
Prozesua	- Taldekide guztiak inplikatu dira	10%
	- Lan-talde kohesionatua izan da	
	- Partaidetza aktiboa egon da	
	- Iturri egiaztatuak erabili dira	
	- AOI faseak bete dira	
Ahozko defentsa	- Taldekide guztiak edozein atal defendatzeko gai dira	10%
	- Jariotasuna eta erritmo egokia	
	- Baliabide linguistiko egokiak	

B. Ikaslearen autoebaluaziorako txantiloia

Ebaluazio arloa	Irizpideak	Pisuaren %a
Prozesua	- Taldearen funtzionamenduan parte hartu dut (bilerak, eztabaidak, dinamizazioa, etab.)	10%
	- Ideia berriak eta esanguratsuak eman ditut	
	- Bilera guztietara joan naiz	
	- Esleitutako zereginei behar adinako denbora eskaini diet	
	- Iturri fidagarriak kontsultatu ditut	
	- Kritikak eta iradokizunak onartzeko prestutasuna erakutsi dut.	

C. Irakasleak taldeari egindako autoebaluaziorako txantiloia

Ebaluazio arloa	Irizpideak	Pisuaren %a
Prozesua	- Ideiak argi eta zehaztasunez adierazi dira	10%
	- Argudioen koherentzia	
	- Gaiaren ulermen sakona	
	- Arrazoibide heldua	
	- Informazio iturri egokien erabilera	
	- AOI metodologia aplikatzea.	